

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Jendaurrean jartzea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantzako tarifen aldaketa

Udalbatzak, 2019ko urriaren 3ko ohiko osoko bilkuran, behin-behineko onespena eman zion Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantzako tarifen aldaketari.

Argitara ematen da hau hogeita hamar egun balioduneko epeaz, Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 19ko 41/89 Foru Arauaren 16. artikuluari jarraituz. Epe horretan, interesdunek espedientea aztertu ahal izango dute Udalaren Idazkaritzan, eta bidezkotzat jotzen dituzten erreklamazioak edo oharrak egin. Erreklamaziorik ez badago, hartutako erabakia behin betikotzat joko da.

Araia, 2019ko urriaren 4a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMÉNEZ